

KOSTUEN EGITURA

Atal honetan, gure enpresak edukiko dituen kostu desberdinak izendatuko eta kalkulatu ditugu, bi ataletan banatuz: hasierako inbertsioak (hasierako kostua, enpresa sortzeko) eta hilabeteroko kostuak. Eta azkenekoak ere sakonago azalduko ditugu: kostu finko (enpresaren iraupen osoan egongo diren eta aldakorrek ez diren kostuak) eta kostu aldakorretan (ekoizten denaren arabera) banatuz.

Hasteko, hasierako inbertsioak kalkulatu ditugu. Hau da, gure negozioa zerotik hasten denez, hasieran funtziona dezan beharrezkoak diren inbertsioen totala kalkulatu dugu.

HASIERAKO INBERTSIOA		
Inbertsioa		Kostua
Ordenagailuak		$3 \times 500 = 1.500\text{€}$
Patentea		875€
Materiala	Inpresora	200€
	Boligrafoak, zeloa...	100€
Guztira		2.675€

Ondorengo taulan, hilabeteko edukiko ditugun kostu finkoak azaltzen dira, eta izenak esaten duen bezalaxe, hauek beti berdinak dira, ez dira ekoizpenaren arabera aldatuko eta beraz, hilabetekoa kalkulatu ondoren, urtekoaren kalkulua ere egin dugu.

KOSTU FINKOAK		
	Hilabetean	Urtean
Soldatak	$3 \times 1.300\text{€} = 3.900\text{€}$	$12 \times 3.900 = 46.800 \text{€}$
Abokatua	2.000€	$12 \times 2.000 = 24.000 \text{€}$
UGASSA (lokala + argindarra +	30€	$12 \times 30 = 360\text{€}$

Internet...)		
Salmenta guneak: Amazon	39€	12 x39 € =468 €
GUZTIRA	5.969€	71.628€

Bestalde, enpresa guztien antzera, gureak ere kostu aldakorrak edukiko ditu, hau da hilabete bakoitzean ekoizitakoaren arabera aldatuko direnak. Ondoren ikusgai dagoen taulan GDI enpresaren kostu aldakorrak agertzen dira, kontuan hartuz lehen hilabeteetan edukiko dugun ekoizpen maila eta bukaeretakoa desberdina izango dela, guk urtean salduko dugun konpas kopuruaren aurreikuspen bat egin dugu : 39.265 konpas

KOSTU ALDAKORRAK		
		Urtean
konpasak eta ezaugarriak	7,99€ / unitatea	39.265 x7,99€ = 313.727,35 €
Konpasaren txipa	1€ / unitatea	39.265 x 1€ = 39.265€
Kartoizko kaxak	0,70€ / unitatea	39.265 x 0,7€ = 27.485,5€
Pegatinak	0.08€ / unitatea	39.265 x 0.08€ = 3.141,2€
Gasolina	105€ / hilabetean (gutxi gorabehera)	105 x 12€ = 1260 €
Correos-eko bidalketak	33€/15kg-ko paketea	1.500 x 33€ = 49.500€
Publizitate	youtube	12 x 75€ = 900 €
	instagram	
	tiktok	
GUZTIRA		435.279,05€ → 36.273,25 € hilabetean (gutxi gorabehera)



Beraz, hasierako inbertsioak alde batera utzita eta kostu finkoak zein kostu aldakorrak kontuan edukiz, hilabeteko eta urteko kostu totalen kalkulua egin dugu. Kontuan edukita ez direla guztiz zehatzak izango, gure aurreikuspenen arabera eginak bait dira kalkuluak.

KOSTU TOTALA		
Mota	Hilabetean	Urtean
Finkoak	5.969€	71.628€
Aldakorrak	36.273,25€	435.279,05€
GUZTIRA	42.242,25€	506.907,05€

